

2015-11-24ko OHIKO OSOKO BILKURA

Irurako udaletxean, 2015eko azaroaren 24an, arratsaldeko 19:30ean, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da ohiko osoko bilkura egiteko. Mahaiburua Ana Jesus Leunda Gurruchaga izan da, udalbatzako alkate-lehendakaria, eta gai-zerrendako gaiak aztertzeko, zinegotzi hauek agertu dira:

-Azaldu diren EAJ/PNV udal-taldeko zinegotziak: Jesus Maria Alonso Insausti, Jose Ramon Epelde Irizar, Maria Cristina Santos San Sebastian eta Marta Castrillo Iturralde.

-Azaldu diren EH BILDU udal-taldeko zinegotziak: Ainhoa Ugalde Gorostiaga, Mikel Gotzon Iturbe Saizar, Jose Ignacio Imaz Bengoechea eta Olaia Nieto Legarra.

-Azaldu ez diren zinegotziak: inor ez.

Miguel Antonio Arrizabalaga Brusin Udaleko idazkariak egin ditu idazkari lanak.

Alkateak irekitzat jo du saio publikoa; segituan, eta alkatearen baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egitea badagoela, bertara agertu baita gutxieneko partaide-kopurua, Toki Jardunbidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araudi Juridikoaren Erregelamendua onartzen dituen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak ezarritakoaren arabera.

Gaiekin hasi aurretik, alkateak esan du bi gauza nahi dituela esan: ez duela onartuko irainik ez alkateari ez zinegotziei, joan den bilkuran gertatu zen bezala. Bigarrenik, publikoa bada eta norbaitek hitz egin nahi badu, alkateak baimena eman arte ezingo duela hitz egin. Adierazi du ez direla hark jarritako arauak, legeak ezarritakoak baizik, eta denek errespetu pixka batekin jokatu behar dugula.

Jose Ignacio Imaz zinegotziak galdetu du zer irain eta errespetu faltez ari den.

Alkateak erantzun dio gezurra esatea leporatu ziotela.

Jose Ignacio Imaz zinegotziak esan dio hori gertatu zela alkateak esan zuelako Mankomunitatearekin adostu zutela zabor-zerbitzuaren aldaketa.

Alkateak adierazi du horregatik izan zela.

Jose Ignacio Imazek erantzun dio Mankomunitateak ezetz esan zuela.

Alkateak erantzun dio hori haiek esaten dutela eta hark beste aldera ikusten duela.

Jose Ignacio Imazek erantzun dio hori ez dela iraintzea, kontrastatzea baizik.

Alkateak erantzun dio hori horrela izango dela baino ez da iraindu behar.

LEHENENGO GAIA:

UDALBATZAREN AZKEN AKTAK (2015-10-25) ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Ainhoa Ugalde zinegotziak adierazi du aktan jasota dagola zabor-bilketaren aldaketa Mankomunitatearekin adostu duzuela eta hori ez dela egia. Ez da Tolosaldeko Mankomunitateko batzarrik egin, hori onartzeko.

Alkateak erantzun du batzarra ez dela egin, baina bide horretan dabiltzala.

Ainhoa Ugalde zinegotziak erantzun dio aktaren aurka bozkatuko dutela, esaldi hori ez delako egia.

Jose Ignacio Imaz zinegotziak adierazi du aktan ezin duela esaldi hori agertu, ez delako egia.

Alkateak galdetu dio ados dauden aktan honako hau agertzearekin: Tolosaldeko Mankomunitatearekin elkarrizketetan direla helburu horrekin.

Hona hemen beste gaia: esaldi bat aldatzea eta horrela adieraztea 1. puntuan.

Mikel Iturbek galdetu du EAJk erabakiak hartuko dituen berrehun edo hirurehun pertsonaren babesarekin.

Gainera, Ainhoa Ugaldek eskatu du udalbatzaren deialdiak bidaltzea ostegunean, asteburuan ez duelako gaiak aztertzeke denborarik ematen, eta lehen ere gauza bera eskatu zelako.

Zuzenketa horiekin, 2015eko urriaren 25eko ohiko bilkuraren aktaren zirriborroa aho batez onartu da.

BIGARREN GAIA:

ALKATETZAREN DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2015/239tik 2015/260raino.

Alkateak honako dekretuen berri eman dio Udalbatzari: 2015eko 239tik 260era bitartekoak. Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

Ainhoa Ugalde zinegotziak adierazi du dekretu batean agertzen dela peoi bat hartzeko deialdia egin dela, eta galdetu du pertsona asko agertu diren edo ez.

Alkateak erantzun dio hamahiru pertsona agertu direla, eta hurrengo egunean probak egingo direla.

Ainhoa Ugalde erantzun dio harritura geratu direla peoientzat LH titulu gutxienez eskatzea.

Idazkariak erantzun dio bakarrik eskatzen dela gida-baimena, eta titulu hori meritua baino ez dela.

Olaia Nieto Legarra zinegotziak galdetu du txakur arriskutsuen baimena bost urterako izan behar duen edo gutxiagokoa izan daitekeen.

Idazkariak adierazi du bost urterako izan behar duela derrigorrez, legearen arabera.

HIRUGARREN GAIA

2015eko HAUTESKUNDE OROKORRETARAKO MAHAIKIDEEN ZOZKETA

2015eko Hauteskunde orokorretarako mahaikideak aukeratu behar dira, eta, zozketa egin ondoren, aukeraketa egin da. Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

LAUGARREN GAIA

IRURAKO HAPOari HASIERAKO ONARPENA EMATEA, HALA BADAGOKIO.

2012ko maiatzaren 22an, Gipuzkoako Foru Aldundiak Irurako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra onartu zuen.

Con fecha 22 de mayo de 2012, la Diputación Foral de Gipuzkoa aprobó el Plan General de Ordenación Urbana de Irura.

Gaur egun, Udalak xedapen-aldaketa bat egin nahi dio planari, Katategi Bailerako 18. eremuan dauden Angulas Aguinaga eta Inmobiliaria Amocar industriren instalazioak zabaltzeko helburuarekin.

En este momento este Ayuntamiento quiere proceder a la modificación puntual del mismo al objeto de promover la ampliación de las instalaciones de las industrias de Angulas Aguinaga e Inmobiliaria Amocar en el Area 18 Katategi Bailara del Plan.

Iñaki Echeverria arkitektoak dokumentazio teknikoa idatzi du.

Ikusita Udal Hirigintzako

Habiéndose redactado la documentación técnica por el arquitecto D. Iñaki Echeverría.

Batzordea aldeko ebazpena eman duela.

Ikusita idazkari-kontu hartzailearen txostena.

Hirigintzako legediak ezarritakoarekin adostasunean, Udalbatzak, aho batez eta udal-kide kopuruaren gehiengo absolutu legalaren aldeko botoarekin, erabaki du hartzea honako

AKORDIOA:

Lehen.- Udal honek egin duen Irurako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren 1. Xedapen Aldaketa hasiera batean onartzea.

Bigarrena.- Espedientea jendaurrean jartzea hilabeteko epeaz, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta probintziako egunkaririk hedatuenean/hedatuenetan argitaratuta, azkeneko argitalpenetik.

Epe horretan zehar, dokumentazioa denen eskura egongo da, inork aztertu nahi badu eta alegazioak egin nahi badizkio.

Hirugarrena.- Behar diren txostenak eskatzea, bai errepedien

Visto el dictamen favorable de la Comisión Municipal de Urbanismo.

Visto el informe del Secretario-Interventor.

De acuerdo con lo dispuesto en la legislación urbanística, la Corporación acuerda por unanimidad de los presentes, que representa el voto favorable de la mayoría absoluta legal de miembros de la Corporación, lo siguiente

ACUERDO:

Primero.- Aprobar inicialmente la Modificación Puntual nº 1 del Plan General de Ordenación Urbana de Irura formulada por este Ayuntamiento.

Segundo.- Someter el expediente a información pública durante el periodo de un mes mediante anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en el diario o diarios de mayor circulación en la provincia, a partir de la última publicación.

Durante dicho periodo la documentación estará a disposición de cualquiera que quiera examinarlo y se podrán deducir las alegaciones pertinentes.

Tercero.- Solicitar los informes pertinentes en materia

arloan Gipuzkoako Foru Aldundiari, bai ur-baliabideen arloan Ur Administrazioari, eta behar diren gainontzeko txostenak ere bai, hala badagokio.

Laugarrena.- Lizentzien emakida gehienez ere bi urtez etetea, Plan Orokorreko Katategi Bailerako 18. eremuari dagokion industria-instalazioen eremuan.

Edonola ere, etenaldia amaituko da ezarritako epea betetzean edo aldaketa hau behin betiko onartzen denean, azken hori lehenago gertatuz gero.

de carreteras a la Diputación Foral de Gipuzkoa y a la Administración Hidráulica en materia de recursos hídricos y el resto de los informes pertinentes, en su caso.

Cuarto.- Suspender el otorgamiento de licencias, por el plazo máximo de dos años, en el ámbito de las instalaciones industriales referidas en el Area 18 de Katategi Bailara del Plan General.

En todo caso, la suspensión se extinguirá con el mero transcurso del plazo o la aprobación definitiva de esta Modificación, si fuese anterior.

BOSGARREN GAIA

EUSKAL FUNTSAREN 2015eko DIRU LAGUNTZA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Irurako Udalak, Euskal Funtsaren kide den heinean eta harekin hartutako konpromiso ekonomikoari erantzunez, 3.000 €-ko ekarpena egin nahi du 2015eko ekitaldirako.

Hala ere, diru-laguntza hori zuzeneko emakida da, eta 2015eko Udal Aurrekontu Orokorrean izenez esleituta dago.

Hori ikusita, Udalbatzak aho batez hau onartu du:

ERABAKIA

Lehena.- 2015eko urteko diru-laguntza hauek onartzea:

- P 236K. Norberak eraikitako 120 etxebizitza IV. Fasea, Somoto, Nikaragua: 1.000 euro.
- P261K. Tokiko garapen ekonomikora bideratutako prestakuntza, El Rama, Nikaragua: 1.000 euro.

Bigarrena.- Mendebaldeko Saharak uholdeengandik jasan dituen kalteak konpontzeko: 1.000 euro.

Hirugarrena.- Diru-laguntza horiek ordaintzea.

SEIGARREN GAIA

IRURAKO UDALEKO 2015eko ENPLEGU PUBLIKOKO ESKAINTZAREN PROPOSAMENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

2015eko azaroaren 12ko Alkatearen Dekretuaren berri eman da:

Udalbatzaren 2015eko apirilaren 28ko akordioz, Irurako Udaleko Giza Baliabideen Antolamendu plana onartu zen, eta 2015eko maiatzaren 27ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Bertan, beste neurri batzuen artean, animatzaile soziokulturalerako plaza sortzea erabaki zen, eta barne-sustapen bidez betetzea.

Aintzat hartuta enplegu publikoko eskaintza eta Alkatezaren eskumeneko langileak hautatzeko proben oinarriak onartu direla Tokiko Jardunbideko Oinarriei buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1. artikuluekin adostasunean.

Hori dela eta,

ERABAKI DUT:

Lehen.- 2015erako Enplegu Publikoko Eskaintza onartzea, plaza hauek betetzea aurreikusten duena:

- 1.-Karrerako funtzionarioak.
- A) Txanda irekia: bat ere ez.

Por acuerdo de Pleno de este Ayuntamiento de Irura, de fecha 28 de abril de 2015, se aprobó el Plan de Ordenación de Recursos Humanos de este Ayuntamiento de Irura y se publicó en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de fecha 27 de mayo de 2015.

En él se aprobaba, entre otras medidas, la creación de la plaza de Animador/a socio-cultural, a cubrirse por promoción interna.

Considerando que la aprobación de la oferta de empleo público y la aprobación de las bases de las pruebas para selección de personal con competencia de la Alcaldía, de acuerdo con el art. 21.1 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, de Bases del Régimen Local.

Ante ello,

RESUELVO:

Primero.- Aprobar la Oferta Pública de Empleo para el año 2015, en la que estará prevista la cobertura de las siguientes plazas:

- 1.-Funcionarios de Carrera.
- A) Turno Libre: Ninguno.

B) Txanda mugatua:
b.1) Administrazio bereziko eskala.
Lanpostua: Animatzaile
soziokulturala.
Taldea: C1
Arduraldia: % 100.
Hizkuntza-profila: 3.

Derrigortasun-data: 2015-07-01.

2.-Langileak: bat ere ez.

Bigarrena.- Animatzaile
soziokulturalaren plaza barne-sustapen
bidez betetzeko hautaketa-prozesuaren
deialdia onartzea.

Hirugarrena.- Deialdiaren
oinarriak onartzea eta Akordio honi
eranstea.

Laugarrena.- Enplegu Publikoko
Eskaintzaren Oinarriak osorik argitaratzea
Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean,
Euskadiko Aldizkari Ofizialean eta
Estatuko Aldizkari Ofizialean, dagokion
bezala, indarreko legediak adierazitakoa
betez.

Udalbatzak aho batez erabaki du Alkatetza dekretua berrestea.

ZAZPIGARREN GAIA

2015eko URRIAREN 7ko EUSKAL HERRIKO AUZITEGI NAGUSIAK UDALBILTZARI BURUZ EMANDAKO EPAIA JAKINARAZTEA.

Irurako Udaleko Idazkaritzak
Irurako Udalaren kontra abiarazitako
prozeduretan emandako Epaiak

B) Turno Restringido:
b.1) Escala de Administración
Especial.

Plaza: Animador/a Socio-
Cultural.

Grupo: C1
Dedicación: 100%.
Perfil Lingüístico: 3.

Fecha de Preceptividad: 01-07-
2015.

2.-Personal Laboral: Ninguno

Segundo.- Aprobar la
convocatoria del proceso selectivo en
promoción interna de una plaza de
animador/a socio-cultural.

Tercero.- Aprobar las Bases de
la convocatoria, que se incorporan
como anexo al presente Acuerdo.

Cuarto.- Acordar la
publicación de la Oferta Pública de
Empleo las Bases íntegras en el
Boletín Oficial de Gipuzkoa, Boletín
Oficial del País Vasco y Boletín
Oficial del Estado, según proceda, de
acuerdo con lo señalado en la
legislación vigente.

Por la Secretaría de este
Ayuntamiento de Irura, se da cuenta de
las siguientes Sentencias en

jakinarazten ditu, Estatuko Administrazio Orokorrak errekurtoa jarri baitzuen Irurako Udalak 2014ko otsailaren 25eko bilkuran hartutako akordioaren aurka, 2014ko ekitaldian Udalbiltza Patzuergoari 3.000 euroko ekarpena egitea onartzen zuena.

Hauek dira epaiak:

- a) EAeko Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Salak 2015eko urriaren 7an emandako epaia, Estatuko Administrazio Orokorrak Administrazioarekiko Auzien Donostiako 3. Epaitegiak 274/2015 errekurtoan 2015-02-03an emandako 28. autoaren kontra jarri zuen Apelazio Errekurtoaren gainean:

Estatuko Administrazio Orokorrak Administrazioarekiko Auzien Donostiako 3. Epaitegiak 274/2015 errekurtoan 2015-02-03an emandako 28. autoaren kontra jarri zuen Apelazio Errekurtoa gaitzetsi, apelatutako autoa berresten da eta apelazio-egileari egozten zaizkio instantziaren kostuak.

Epai hau irmoa da, eta ez du errekurtsorako biderik ematen.

- b) Bigarrena erreferentziazko auzi-errekurtoan aipatzen den 3. Epaitegiak 2015eko otsailaren 3an emandako 28. autoa da. Bertan jasotzen dira Udal honek argudiatzen duen onartezintasun-kausa eta jarritako auzi-errekurtoa garaiz kanpokoa izateagatik salatutakoa.

Ondorioz, Udalbiltzari egindako ekarpenari buruz helegindako akordioa irmo bihurtzen da.

Era berean eta Ainhoa Ugalde zinegotziaren galderen harira, idazkariak

procedimientos interpuestos contra este Ayuntamiento de Irura, en recurso interpuesto por la Administración General del Estado contra acuerdo de este Ayuntamiento de Irura en sesión celebrada el día 25 de febrero de 2014 sobre aprobación de aportación económica de 3.000 euros al Consorcio Udalbiltza Patzuergoa correspondiente al ejercicio económico de 2014.

Las sentencias son las siguientes:

- a) Sentencia de 7 de octubre de 2015 del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, Sala de lo Contencioso-Administrativo, en Recurso de Apelación, interpuesto por la Administración General del Estado con el auto nº 28 de 03-02-2015 dictado por el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo nº 3 de Donostia-San Sebastian en el recurso contencioso-administrativo nº 274/2014 citado:

Se desestima el recurso de apelación interpuesto por la Administración General del Estado, contra el auto nº 28 dictado por el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo nº 3 de Donostia-San Sebastian, confirmando el auto apelado e imponiendo a la apelante las costas de instancia.

Esta Resolución es firme y contra la misma no cabe recurso.

- b) La segunda es el auto nº 28 de 3 de febrero de 2015 del Juzgado nº 3 citado en el recurso contencioso de referencia, en el que se recoge la causa de inadmisibilidad invocada por este Ayuntamiento y la codemandada por extemporaneidad del recurso contencioso interpuesto.

En consecuencia el acuerdo recurrido sobre aportación a Udalbiltza deviene firme.

Así mismo y a preguntas de la concejal Ainhoa Ugalde el Secretario

erantzun du EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak ezarritako doktrinak xedatzen duela Euskal Herri Administrazioek Euskal Autonomia Erkidegoan Estatuko Administrazioaren organoekin dituzten harremanak eskusiboki euskaraz ala Euskadiko hizkuntza ofizialetako edozeinetan gauza daitezkeela.

responde que por el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, se ha establecido doctrina en el sentido de que las relaciones de las Administraciones Públicas Vascas con los órganos de la Administración del Estado en la Comunidad Autónoma Vasca, se podrán establecer exclusivamente en euskara o en cualquiera de las lenguas oficiales del País Vasco.

ZORTZIGARREN GAIA

AZAROAREN 25eko ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

“EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA”

Azaroaren 25a dela eta, data hori izendatu baitu Nazio Batuen Erakundeak “Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko Nazioarteko Eguna”, gure gaitzespenik irmoena adierazi nahi dugu emakumeen aurkako edozein indarkeria-adierazpenekiko, zeinahi dela ere (fisikoa, psikologikoa, sexuala, sinbolikoa...), bai eta sexismo-modu guztiekiko ere, barne daudelarik finenak eta normalizatuenak, hala nola sexuen araberako rol estereotipatuak ezartzea edo bizitzaren esparru askotan emakumeak ikusgai ez egotea. Berretsi nahi dugu, era berean, arazo estruktural baten aurrean gaudela, eta, arazo horrek emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasun eza oinarri duenez, ezinbestekoa dela berdintasun-politiken bidez gaiari heltzea, adituek zein nazioarteko erakundeek gomendatzen duten bezalaxe.

Emakumeen aurkako indarkeriak gizartearen egituraren bertan du euskarria; izan ere, oraindik ere aukera desberdinak eskaintzen zaizkie emakumezkoen eta

DECLARACIÓN INSTITUCIONAL DE 25 DE NOVIEMBRE

“DÍA INTERNACIONAL CONTRA LA VIOLENCIA HACIA LAS MUJERES”

Con motivo del 25 de Noviembre, fecha declarada por la Asamblea General de Naciones Unidas como “Día Internacional para la eliminación de la violencia contra las mujeres”, manifestamos nuestro firme rechazo hacia cualquier expresión de violencia contra las mujeres en todas sus dimensiones (física, psicológica, sexual, simbólica...), así como a las distintas formas de sexismo, incluidas las más sutiles y normalizadas, como la asignación de roles estereotipados por sexos o la invisibilización de las mujeres en los distintos ámbitos de la vida, entre otras. Reafirmamos, asimismo, que nos encontramos ante un problema estructural que teniendo como base la desigualdad entre mujeres y hombres requiere un abordaje a través de las políticas de igualdad, tal y como recomiendan numerosas personas expertas y organismos internacionales.

La violencia contra las mujeres se asienta en la misma estructura de la sociedad, que aún ofrece diferentes oportunidades a mujeres y a hombres y que aún limita la

gizonezkoei, eta oraindik ere, jaiotza-sexuaren arabera pertsonen askatasuna mugatzen da. Saiatu behar dugu bestelako gizartea eraikitzen, non pertsona guztiak askatasuna izango duten nahi duten bezalakoak izateko, non aukera izango duten potentzialtasun osoz garatzeko eta non giza eskubideen arabera berdintasunezko eta begirunezko tratua jasoko duten.

Gure xedea da pertsona guztienganako tratua onak bermatuko dituen gizarte batean bizitzea, urrats bat gehiago emango duen, eta, emakumeenganako indarkeriaren aurka egoteaz gain, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde argi azalduko den gizarte batean, alegia. Pertsonen arteko harremanak errespetuan, autonomian eta berdintasunean oinarrituko dituen gizarte bat aldarrikatzen dugu. Errespetatzea ez da bakarrik ez erasotzea; aitzitik, horren esanahia ere pertsona bakoitzak, berdintasun ezak dakarren mugarik gabe, haren bizitza-ibilbidea irudikatu ahal izateko bermea edukitzea ere bada.

Erakundeen aldetik, geure ardura sozial eta politikoa onartu behar dugu, tratua onak sustatuko dituen gizartea eraikitzeko orduan, eta, horretarako, gure aurreiritziak, rolak eta eguneroko jarrerak gure baitatik berrikusten hasi.

Horregatik guztiagatik:

- Konpromisoa hartzen dugu gure eskuduntzen esparruan udal-politika aktiboa, integrala eta koordinatua garatzeko, tratua onen eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde.
- Eta herritarrak gonbidatzen

libertad de las personas dependiendo del sexo con el que hayan nacido. Debemos esforzarnos en construir una sociedad en la que todas las personas tengan la libertad de ser como quieran ser, la oportunidad de desarrollarse en todo su potencial y en la que reciban un trato igualitario y respetuoso con los derechos humanos.

Aspiramos a vivir en una sociedad que garantice los buenos tratos para todas las personas, una sociedad que dé un paso más y además de mostrarse contra la violencia hacia las mujeres, se manifieste claramente a favor de la igualdad de mujeres y hombres. Abogamos por una sociedad en la que las relaciones entre las personas se basen en el respeto, la autonomía y la igualdad. Respetar no sólo significa no agredir, significa también garantizar que cada persona pueda dibujar su trayectoria vital sin la limitación que supone la desigualdad.

Desde las instituciones debemos asumir nuestra responsabilidad social y política en la construcción de una sociedad que fomente los buenos tratos, empezando por el ejercicio personal y colectivo de revisar nuestros prejuicios, roles y actitudes cotidianas.

Por todo ello:

- Nos comprometemos a desarrollar en el ámbito de nuestras competencias, una política municipal activa, integral y coordinada en favor de la igualdad de mujeres y hombres y de los buenos tratos.

ditugu berdintasunaren aldeko konpromiso pertsonalk eta kolektiboak har ditzaten, urteko egun guztietan, eta azaroaren 25a dela-eta burutuko diren ekitaldietan parte har dezaten ere, bai eta gazteen arteko prebentzio eta hezkuntzarako 'Beldur Barik' ekimenean ere.

- E invitamos a la ciudadanía a adoptar compromisos personales y colectivos a favor de la igualdad, todos y cada uno de los días del año, y a participar activamente en los diferentes actos que se lleven a cabo con motivo del 25 de noviembre, así como en el programa de prevención y educación para la igualdad entre la juventud 'Beldur Barik'.

Hori ikusita, Udalbatzak aho batez onartu du Adierazpena.

BEDERATZIGARREN GAIA

EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNAREN ADIERAZPENA.

"ADIERAZPEN EREDUA: EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNEAN EUSKALDUN BERRIAK AITORTZEA.

HAKOBA Herri Administrazioen arteko Koordinaziorako Batzordeak —Hezkun^oa, Hizkun^oa Politika eta Kultura Saila, Ogasun eta Finan^oak Saila, HABE, Arabako Foru Aldundia, Bizkaiko Foru Aldundia, Gipuzkoako Foru Aldundia, EUDEL, Bilboko Udala, Donostiako Udala, Vitoria-Gasteizko Udala, UEMA eta IVAP erakundeek osatua— aho batez adostu zuen aurten herri-administrazio guztiok era bateratuan eta ardatz edo lelo berarekin antolatzea abenduaren 3an ospatzen den Euskararen Nazioarteko Eguna. Ardatz edo ideia nagusi hori euskaldun berriei aitorpena egitea da, euskararekin erakutsi duten atxikimenduarengatik eta hizkuntza hori ikasteko egin duten ahaleginagatik. Aitorpen hori bistartzeko, EAEko udalei "Euskaldun berria" izendapena proposatzea ere adostu zuen, egokien deritzoten lekuari atxikitzeo, dela kale, plaza, lorategi, iturri, areto, gun e do antzeko besteren bat, hau da, espazio biziak, mugimendurako eta harremanetarako tokiak, jendearen arteko interakziorako guneak.

Zentzu horretan, honekin batera EUDELeko Batzorde Eragileak landu duen adierazpen-eredua doakizu, eta, bertan, proposatzen da konpromisoa hartzea egokien ikusten den udal-gunea (dela kale, plaza, lorategi, parke, iturri, areto eta antzekorik) "Euskaldun berria" izenez izendatzeko.

Baldin eta Udalak gune edo espazio zehatz horren izendapena gauzatzea adostuko balu, EUDELi horren berri ematea proposatzen da, erakunde honek era berean HAKOBARI jakinaraz diezaion.

Azkenik, EUDELEK gonbita luzatzen die EAEko udal guztiei adierazpen-eredu honekin bat egitera; alegia, laster herriko gune bat hautatu, egokien

ikusten den espazioa, eta horri "Euskaldun berria" izena jartzera, abenduaren 3a ospatzeko.

Hazkunde-prozesua izan da EAEn euskara biziberritzearena, eta bi izan dira prozesu eredugarri horren zutabe nagusiak: hezkuntza eta helduen euskalduntzea. Azken hamarkada hauetan, milaka eta milaka izan dira heldutan euskara ikastea erabaki duten herritarrak, eta milaka, baita ere, euskararen aldeko hautua eginez, euskararik jakin edo jakin ez, euren seme-alabentzat euskarazko irakaskuntzaren aukera egin dutenak.

2015eko Euskararen Egunean, euskarara hurbiltzeko hautua egin duten pertsonen aitormena egin nahi zaie, euskararen biziberritze-prozesua etengabe elikatzen baitute pertsona horiek, eta haien guztien gogo, kemen eta ahalegina omendu nahi dira.

Horregatik guztiagatik:

Udal honek konpromisoa hartzen du heldutan euskara ikastea erabaki duten pertsona guztiei jendaurreko aitortza erakustea, eta udalerriko kale, plaza, lorategi, iturri, areto edo guneren bati laster EUSKALDUN BERRIA izena jartzea."

Adierazpen hori ikusita, Udalbatzak aho batez onartu du.

HAMARGARREN GAIA.

GALDE-ESKEAK.-

Puntu honetan gai hauek aztertu dira:

A) Jose Ignacio Imaz zinegotziak galdetu du zergatik aldatu den web-orria enpresa eta nola kontratatu den.

Alkateak erantzun dio aurrekontu batzuk aurkeztu zirela, eta enpresa hori eman zitzaioela.

Jose Ignacio Imaz galdetu dio zer irizpide erabili ziren enpresa hori kontratatuzeko.

Alkateak erantzun dio konfiantzako pertsona batzuek enpresa hori aholkatu ziotela, eta enpresa horrekin harremanetan jarri zirela eta ikusi zutela nahiko merkea zela proposamena, beste enpresek alderatuta.

Jose Ignacio Imazek eskatu du enpresen proposamenak aurkeztea, eta alkateak onartu egin du.

José Ignacio Imazek galdetu du nor den enpresako nagusia.

Alkateak erantzun dio bi direla, eta horietako bat Joseba Ormazabal dela.

Jose Ignacio Imazek erantzun dio gizon hori EAJko zinegotzia dela Tolosan, eta galdetu du ez ote den pixka bat susmagarria, beste enpresa batzuk izanda EAJko zinegotziaren enpresari ematea eta dezente garestiagoa dela. Amaitzeko, adierazi du haren ustez hori prebarikazioa dela.

B) Partikular batek galdetu du zer egoeratan dagoen Alkortako obra, eta alkateak erantzun dio teknikariaren txostena bidaliko diola.

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak 20:15ean eman du amaitutzat bilera. Bertan esandako guztia aktan jaso dut, eta dena EGIAZTATZEN dut idazkari gisa.

ALKATEA

IDAZKARIA